

GILTZA ELEKTRONIKOAK: ERABILERA POLITIKA ETA GIDA

ERABILERA POLITIKA

- **Txartelak izendunak eta besterezinak dira**

Ikastolan, giltza elektronikoa txartel forma dute. Txartel horiek izendunak eta besterezinak dira: norberak berea du eta ezin zaio beste inori utzi. Bakoitzak bere giltza gorde behar du eta bere gain hartu txartelaren ardura.

Giltzak, besteak beste, alarma jarri eta kentzeko aukera ematen du eta, beraz, langileak bere gain hartu behar duen ardura bat dakar.

- **Ordezko txartelak: nola eskatu eta bideratu**

Langile titularraren gaixoaldiagatik edo beste motiboren bategatik aldi baterako langileak etortzean, giltza beharko balu, aldi baterako langilearen arduradunak eskatuko dio mantenu arduradunari horretarako den aplikatibotik tiketa irekita.

Behin-behineko langileak aldi baterako bere jarduna bukatzean, txartela bere arduradunari itzuliko dio; eta azken horrek mantenu arduradunari desgaitu eta berrabiltzeko moduan jar dezan.

- **Txartelak eguneratzaitetik maiztasunez pasa behar dira**

Sistemaren funtzionamendu egokirako, funtsezkoa da txartelak maiz eguneratzea. Sarrailan dagoen informazioa sarera igotzen da, horrela.

- **Txartela galtzean zer egin**

Inork txartela galtzen badu berehala jakinarazi behar dio bere arduradun zuzenari, eta hark mantenu arduradunari, txartel hori desgaitzeko. Langileak galeraren ardura eta kostua (giltza berria erostea) beregain hartuko ditu.

ERABILERA GIDA

Eguneratzailea



LH

DBH

Lino

Esmalteria

Eguneratzaileak daude Ikastolaren eraikin guztietan. Txartela hurbildu eta led urdina piztuko zaio lehenengo (txartela eguneratua); ondoren, berdea, ateak zabaltzeko aukera duten eguneratzaileetan (hau da, Lino eta Esmalterian); eta azkenik, gorria.

Nahitaezkoa da txartela astean behin eguneratzea. Horrela, iraungitze data luzatzen zaio giltzari, eta sistema eta txartelen arteko datuak berritzen dira (baimen berriak kargatu, adibidez). Edozein eraikinetako eguneratzailea erabili daiteke txartela eguneratzeko.

Lino eta Esmalteriako eguneratzaileak atezain automatikoen ondoan dauden teklatudun karratu beltzak dira. DBH eta LHko eguneratzaileak, berriz, sarreraren ondoan dauden karratu grisak. **ERNE!** Ez nahastu argi berdedun karratuaren azpian daudenekin! Horiek ez dute eguneratzen, alarma aktibatu eta desaktibatuzeko dira.

Alarmak (LH eta DBH)



LH

DBH

Langileek alarma jarri eta kentzeko aukera dute.


ALARMA JARTZEKO

Txartela pasa. Lehenik led urdina piztuko da, ondoren berdea, eta azkenik gorria. Txistu bat entzungo da segundo batzuek. Denbora hori iragan ondoren, argi karratua gorria jarriko da eta alarma aktibatuta geldituko da.

ALARMA KENTZEKO

Argi karratu gorria piztuta dagoela, txartela hurbildu. Led urdina piztuko da, ondoren berdea, eta azkenik gorria; eta laukia berdera pasako da. Alarma desaktibatuta dago.

GOGOAN HARTZEKOAK



Argi karratua: berdea = alama kenduta | Gorria = alarma jarrita!

Led argia: seinalea ematen duenaren adierazlea

Zilindroa (atearen heldulekua)



Txartela hurbildu eta argi berdea piztuko zaio. Piztu eta gero, denbora tarte bat dago zilindroari eraginez sarraila ireki edo ixteko. Denbora tarte hori pasata, argi gorria pizten da eta zilindroa aske gelditzen da, ez dio sarrailari eragiten.

Zilindroa bakarrik duten ateetan nahitaezkoa da zilindroari buelta ematea, giltza bat izango balitz bezala, atea itxi eta irekitzeko.

Kontuz ibili! Ate mota honetan, atea giltzaz ixten ez bada (txartela pasa eta zilindroari eragin) atea irekita geratzen da.

Maratila



Txartela hurbildu eta led berdea piztuko da. Maratilaria eragin eta atea irekitzeko aukera egoten da, denbora batez. Denbora hori igarotzean, led gorria piztuko da eta maratila aske geratuko da.

Ate hauei ez zaie ezer egin behar giltzatzeko: bultzatu eta nahikoa da.

Ate hauek “modo paso” moduan programatzeko aukera dute. Hau da: ordutegi baten barruan, zabalik mantentzen daitezke eta, ondoren, automatikoki itxi. “Modo paso” aktibatzeke, atea ohi bezala ireki eta maratila jaitzita eusten den bitartean, txartela jarrita eduki behar da (led berdea lau aldiz piztuko da jarraian).

Desaktibatzeke, maratila jaitzita mantendu eta txartela jarri behar da. Led berdea piztuko da eta ondoren gorria; eta, listo. Bestela ere, programatutako orduan automatikoki askatuko da maratila eta ezingo da txartelik gabe sartu.